MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
108. zenb. 2011ko uztaila

KALAPUTXI



ANTON URREISTI
berezko dohain baten jabe

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Antonio Agirregomezkorta "Txartxa" atleta bat defentsa lanetan

Udal antolaketa berria

Motz-motzian eta giro ederrian

Aliprox

DENDA BERRI

liderra den Talde baten babesarekin

Malen Jai zoriontsuak
gure bezero zareten guztioi!

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Karenka	10
Gizartia	12
Argazkitan	14
Bertsuak	17
Kirola	18
Lan giruan	20
Kulturia	22
Zorion agurrak	24
Argazki zaharrak	25
Agenda	26

Udal berria martxan hasi da.

Anton Urreisti, berezko dohain baten jabe.

Antonio Agirregomezkorta “Txartxa”

Larrua lantzeko artea; larrugintza.

Argitaratzailea: Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa: 943 603468 / 635 748 393
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com
Bloga: kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea: Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak: Iñigo Andonegi, Josu Ituarte
Tirada: 2.200 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati
Banaketa: Kalaputxi

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kalaputxik eskerrak eman nahi dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi.

Mutrikuko Udaleko
Kultura eta Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Zaintzako botikak:
Otxagabia (Mutriku) 689 58 57 59
Apraiz (Mutriku) 630 05 50 97
Zalduegi (Deba) 669 26 22 01
Burgoa (Deba) 667 33 88 90

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Itsas etxea 943 60 34 00
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua 943 60 34 18
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80
Ur partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta trasteak 943 70 07 99
Anai Arte 943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia 638 672 383
Anton Taxia 666 221 999
Xabi Taxia 656 289 026
Pesa autobusak 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Iberdrola 901 20 20 20
Kofradia 943 60 32 00
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Gasolindegia 943 60 32 10

ordutegiak

Autobusak

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak	10:00 / 16:30
Jai egunak	10:00 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak	11:30 / 19:30
Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKUTIK → BILBORA

ASTE BARRUKO EGUNETAN ZERBITZU BERRIA TXANBOLINGO ERROTONDAKO GELTOKITIK

06:25 / 07:25 / 15:25

BILBOTIK → MUTRIKURA

14:10 / 18:10 / 20:10

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIA

Astegunetan: 7:15etik 21:15era orduro.
Jai egunetan: 8:15etik 21:15era orduro.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro.
Jai egunetan: 7:55etik 20:55era orduro.

Trenak

Orduro ateratzen dira adierazitako ordu tartean.

DEBA → DONOSTIA → DEBA

Debatik	**6:44** – 7:44 - ...- **21:44**
Donostiatik	**5:47** – 6:47 - ...- **20:47**

Jai egunetan 8:44etan lehenengoa.

DEBA → BILBO → DEBA

Debatik	**6:43** – 7:43 - ...- **20:43**
Bilbotik	**6:00** – 7:00 - ...- **20:00**

Jai egunetan 8:43etan lehenengoa.

GFA, sektoretik analisia

Azken asteetan jaso dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru Agindua hedabideentzako aurtengo diru-laguntzak ebazten dituena. Ebazpen honetan ikusi ahal izan dugu 2011n ere jaitsiera %25ekoa izango da. Ondorioz hedabideek 2009an baino laguntza txikiagoak jaso dituzte; batzuek %60tik gorako jaitsierak.

Berri txarra, dudarik gabe, euskarazko idatzizko hedabide guztientzat. Euskarazko hedabideek argi adierazi zioten iaz Gipuzkoako Aldundiari hartutako erabakia oso larria eta ulertezina zela, garai ekonomiko zailetan egoera gehiago okertzea zekarrelako. Hala ere, aurten politika berari eutsi diote.

Zaila da ulertzea euskara lehentasunezko duen gobernu batek, garairik zailenetan laguntzak jaistea nola erabakitzen duen. Zer dela eta, beste hainbat sektoretan laguntzak handitzen dira edo sortzen dira krisiari aurre egiten laguntzeko, eta euskarazko hedabideekin juxtu kontrako erabakia hartzen da? Hori da galdera, eta hori da erantzun argirik jaso ez duena.

Euskarazko hedabide ez publikoek benetan sektore garrantzitsua osatzen dute, eta eragin hirukoitza dute euskal gizartean: informazio eskubidea bermatzen laguntzen dute, euskararen normalizazioan eragiten dute eta ekonomian eragiten dute lanpostuak sortuz eta ekarpena eginez zerga bidez. Lehentasunezkoa jotzen den sektore batean, ezin da onartu laguntzak murriztea.

Egun hauetan osatu da gobernu berria Gipuzkoako Foru Aldundian, eta politika hau aldatzeko aukera ezinhobea du hurrengo urteetan. Euskarazko hedabide ez publikoek prestasun osoa dute administrazioarekin batera politika eraginkorrak adosteko, eta jarrera bera adierazten ari den gobernu berriarekin akordioak erdiestea da helburua. Hala bedi!

Garbiñe Garagarza, Auro Ansorregi, Joakin Larrañaga, Nekane Agirre, Nerea Arrizabalaga, Aitziber Andonegi.
Kalaputxi Herri aldizkariaren izenean

gutunak

242 IRIBARRE. ESKARRIKASKO

Eskarrikasko bihotz bihotzez eta talde guztiaren izenean aurreneko Maiatzak 22-an zuen iribarrea gurearen ondoan jarri zenuten guztioi. Gure lana libreki baloratuaz, aurrera egiteko aukera eta bultzada eman diguzuten guztioi. Gure hurrengo 4 urteetako lana zor dizuegu.

Eskertu nahi dugu Mutrikuko herriari beste aukera batzuk jarraituaz ere, gure proposamena errespetatu eta bermatzen utzi digulako.

Legealdi honetako gure erronka nagusiak zintzotasuna, herrigintza eta al den eta hobeen lan egitea izango dira daukagun sinismenei uko egin gabe. Gure gizarteak hainbat kezka dauzka buruan (Bakea, Krisia, Langabezia, Osasuna…). Hala ere eta gure indar guztiarekin, gaixorik dagoen gure planeta honetan Ekologia lehen mailako lehentasuna izan behar duen elementu zeharkatzailea dela erakusten saiatuko gara berriro ere. Sinesten dugu denborak arrazoia emango digula.

Mila esker Mutriku (BEREZIKI 242 AUSARTEI)
GORA MUTRIKUARRAK, EMIAK ETA BESTIAK

MUTRIKUKO BERDEAK+INDEPENDIENTEAK HERRI PLATAFORMA

UDAL BERRIA MARTXAN HASI DA

Maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren, ekainaren 11n eratu zen udala eta Alkate berria ere izendatu zen. Hilabete beranduago, uztailaren 7an, legealdiko lehenengo udalbatza burutu eta udalaren antolaketa berria erabaki zen. Aski ezaguna denez, udalbatzaren konposizio berria BILDUren 8 hautetsik, EAJren 4k eta B+i taldearen 1ek osatzen dute.

BATZORDEAK

Udal-hauteskundeetako kanpainan plazatutakoari jarraiki, udalaren jarduera honako batzordeetan banatzea proposatu zuen BILDUK eta udalbatzak hala erabaki zuen. Hamar batzorde: Euskara, Gazteria, Gobernazioa, Hirigintza, Ingurumena, Jendartea, Kirola, Kultura, Ogasuna, eta Sozioekonomia. Batzorde informatzaileak izatea baino, lanerako batzorde erabakitzaileak izatea helburu jarrita. Horietaz gain, Gobernu batzarra eta Udalbatza ere egongo dira.

Hautetsien arteko batzarrak izateaz haruntzago jo nahi du udal gobernu berriak, eta herrian gai bakoitzean lan egiteko eta ekarpenak egiteko gogoa eta nahia duen edonork tokia izango du modu jarraituan eta antolatuan parte hartzen badu. Herriak denon beharra duela iritzita, ba-tzordekide izango diren bost hautetsiek, arloko udal teknikariek eta arloan zeresanik duten herritarrek hartuko dute parte batzordeetan. Hori dela eta, udal gobernutik dei bat egin nahi zaie herritarrei, taldeetan antolatutakoei nahiz antolatu gabeei, udal funtzionamendura arrimatzeko.

ARRIZABALAGA
Okela eta janari prestatuak
Gora Malenak!
Pol. Ind. Mijoa, P 2 - 2
Tel./Fax: 943 603 055
E-mail: arrizabserideek@terra.es
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

Edari biltegia
Ondo pasa
Malen jaiak !
Iñarrairaegi

AUZOAK

Baina herritarrei udal funtzionamendura arrimatzeko deia egin ondoren, Alkateak adierazi duenez, Udalak ere ariketa egingo du herriko auzoetara ailegatzeko eta hango kezkak, proposamenak, arazoak eta beste jasotzeko. “Guregana etortzeko zain egon gabe, gure ardura izan beharko da auzoetara ailegatzea eta hango nahiak eta beharrak jasotzea”. Laranga, Olatz, Olabarrieta edo Galdona auzoak, Urazamendik edo Pikupe, Entzuz edo Samikolla, auzo guztien berri izan nahi du Udalak. “Geroko jardunak antolatu eta planifikatu egin beharko dira eta beharbada zaila izango da denetara ailegatzea, baina entzun eta jaso guztienak egingo dira”.

Hautetsiek eta herritarrek elkarlanean jardun beharko dute herria aurrera ateratzeko

KOMUNIKAZIOA

Udalaren jardueran herritar guztien parte hartzea bilatze horretan komunikazioak berebiziko garrantzia izan behar duela irizten dio Udal gobernu berriak. Horretarako baliabideak jarri behar direla ere uste dute, teknologia berriak baliatuz eta baliabide tradizionalak erabiliz, helburu hartuta jendeari udala zertan diharduen informatzea eta jendearen proposamenak udalari helaraztea. Eta udalaren web orriaren instrumentalizazioari ere garrantzia eman nahi zaio, internet erabiliz, adibidez, hainbat eskabide eta diru-transakzio egin ahal izateko.

PROZESUA ABIATUTA

Uztailaren 7ko udalbatzan Alkateak adierazi zuenez, udala abiatu baino ez da egin, lau urteko iraupena izango duen lehenengo prozesu baten hasiera baino ez da. “Ez gara lau urtez luzatuko legealdian nola jardun pentsatzen, baina datozen hiruzpalau hilabeetan udal ordezkaritza dugun alderdiok elkarrizketak egingo ditugu adostasun programatikoak bilatzeko, eta metodologikoak ere bai, aurrerantzeko lan-ildoak adosteko. Geure burua behartuko dugu 2012rako aurrekontuak prest daudenerako elkarrizketetatik lortuko diren ildo nagusiak eta lan metodologia izango dira batzordeetako lanean jarraituko direnak.

Hemendik eta urte bukaerara arte egindakoak 2012 urterako aurrekontuetan isladatuko direla adierazi da, eta horien berri hurrengo batean emateko aukera izango dela.

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Uztailaren 7ko udalbatzak “Euskal Presoak Euskal Herrira” aldarrikapenaren ikurra udaletxeko balkoian eta udalbatza aretoan jartzea erabaki zuen, egunero-egunero gogoan izan dezagun helburuarekin. Hasi berria den aldi politiko berrian jokamolde berriak abiapuntu izango badira ere, aldarrikapen zaharrek ere izan beharko dute presentzia gure paisajean.

Argazkiak:Iker Agirregomezkorta

SAN JUAN SUAREN GARRA BIZIBERRITUA

San Juan gauak garai batean zuen lilura berreskuratu du herriko zenbait talderi esker. Sua Burumendira bueltatu dute eta suaren inguruko jaia biziberritzeaz gain, herrian zehar ere berotasuna zabaldu dute. Asko izan dira aldaketarekin pozik agertu diren herritarrak, eta asko oroitzapen zaharrei hautsa astindu dietenak ere.

OLATU BIDEZKO ENERGI PLANTA IRAILEAN BISITATU AHAL IZANGO DA

Olatuen bidez energia sortzen duen energia planta barrutik ezagutzeko aukera edukiko dute herritarrek. Hala adierazi dute Energiaren Euskal Erakundeko (EEE) ordezkariek. Uztailaren 8an Patxi Lopez lehendakaria eta Martin Garitano Gipuzkoako Aldun nagusia izan ziren plantaren inaugurazioan. Udal ordezkariak harreman instituzionalak bidera-tzeko erabili zuten inaugurazioa. Horretaz gain, energi planta honek herriari ekar diezaizkiokeen onura-bideak lantzen ari dira. Sare elektrikoari lotuta dagoen mota horretako energi planta bakarra da herrikoa.

Berdeak-Independenteak taldeak ez zuen ekitaldian parte hartu, besteak beste, “plantak ingurumenaren gaineko eraginen azterketa ez edukitzea” argudiatuz.

EEEkoek adierazi dutenez, energia plantak sortzen duen zarata herritarrentzat ez da arazoa izango.

KOMIKIXA

Josu Ituarte "Pitxame"ren eskutik

DENBORALDI TXUKUN ASKOA OSATU DUTE SOKATIRA TALDEKOEK

680 eta 640 kilotan bigarren eta 600 kilotan hirugarren. Horiek dira denboraldia osatuta herriko sokatiralariek eskuratutako emaitzak. Maila nagusian aurten irabaztea zuten buruan eta bide horretan egon ziren, baina ez zuten lortzerik izan. Taldean aldaketa garrantzitsuak egon dira ¬aingura, esaterako¬. Baina hala ere, taldea sendo agertu da eta emaitza onak lortu ditute azkenean.

NORVEGIARREN AKUAKULTURA ESPERIENTZIATIK IKASI DUTE HERRIKO ORDEZKARIEK

Herriko ordezkari taldea, alkatea buru zutela, Norvegian egon da astebetez. Balea proiektuaren barruan kokatu da egindako bidaia eta hangoek akuakulturan daukaten esperientzia jasotzea zen helburu nagusia. Izan ere, Norvegia, Europa mailan, sektoreko herrialde aurreratuenetakoa da.. Ikerketa eta produkzio zentroak bisitatu dituzte eta akuakulturak herrialdearen baitan izan duen garapena ezagutzeko aukera eduki dute. “Han ikusi eta ikasitakoarekin bertoko etorkizunari aurre egiteko baliagarria izango zaigu. Arrantzale, ikerlari, enpresari eta bestelako eragileen arteko elkarlana oinarrizkoa izango da”, azaldu du alkateak.

WATERPOLO TXAPELKETA MUTRIKUN, URBAT IGERIKETA TALDEAREN ESKUTIK

Datorren larunbatean, uztailak 16, Urbat Igeriketa taldeak antolatuta Mutrikuko V. Hondartza Txapelketa ospatuko da Mutrikuko pizinan. Larunbata egun osoan zehar partida ugari izango dira. Ostiral eta larunbat gauak Frontoian pasako dituzte igerilariek.
Informazio gehiago: **http://urbat.es/**



EGURALDI TXARRARI ERE KANTARI

Herriko zein herrian kantatzeko ohitura zegoen kantu zaharrak, berri bihurtu dituzte beste behin ere. Eguraldi txarra egin arren, dezenteko taldea batu zen herrian zehar kantari uztailairen 9an. Oraingoan denak batera aritu ziren: Goiko zein Beheko plazetan kantatu zuten eta lehengoz Atxukalera ere joan ziren herriko doinuak zabaltzera.

ANTON URREISTI,

berezko dohain baten jabe

Oso margolan erromantikoak egiten ditu. Poetak hitzez egin ohi duen bezala, Antonek pintzelada txikien bidez adierazten ditu bere sentipenak. Paisaiak, inguru industrialak eta urbanoak denetik margotzen du, baina ura da bere elementurik maitatuenetakoa. Txoko eta ikuspegi berriak aukeratzen ditu; gehienetan, beste inork pintatu gabeak.

Umetan hasi zinen pintatzen, ezta?

Umetatik hasi nintzen neure kasa akuarela pintatzen. Pare bat edo hiru bat sari lortu nituen umetan. Autodidakta naiz. Kalean eduki dut eskolarik handiena, eta lagun handiak egin ditut, eta bataren eta bestearen iritziak entzunda, horrelaxe ikasi dut asko. Nik aditu egiten ditut kritika guztiak onak zein txarrak, eta beti gel-

ALBOKA
GORA MALENAK
KAFETEGIA - OKINDEGIA
Domingo Ibaibarriaga, 5 - Tel. 943 60 46 73 - MUTRIKU

Solé Diesel · nanni diesel · YANMAR
Ondo pasa Malenak!
DOISTU
ITSASOKO MOTORREN ALDAGAIAK eta KONPONKETAK
Nasa Kalea, 5 - 20830 MUTRIKU - Gipuzkoa
Tfnoa.: 943 603872 / Mugikorra: 659 670233 / Faxa: 943 603078

ditzen naiz on guztiarekin. Kritikak entzunda asko ikasi dut. Denek esaten didate lehiaketa batetik bestera salto handia ematen dudala. Horixe da txokanteena eta denek esaten didatena: beti ematen dut aldaketaren bat, eta jendea harrituta gelditzen da.

Hasierako lanetatik oraingoetara...

Ez dago zerikusirik, asko aldatu da nire pintatzeko modua. Azken lau urteetan eman dut aldaketa, lehiaketetan parte hartzen hasi naizenetik. Aurreko guztia estudioko lana izan da, eta oso errealista nintzen: argazkiak balira bezalako koadroak egiten nituen. Eskerrak kalera atera nintzen! Aitor Etxeberriak (Mendaroko oso pintore ona denak) bultzatu ninduen kalera ateratzeko, orain dela bost bat urte. Mendaroko udale-txean egin nuen erakusketa bat, eta honelaxe esan zidan berak: “Anton, joan zaitez kalera. Hemen ikusten da dena kontrolatzen duzula: marrazkia, perspektibak, kolorea, espatula, brotxa… dena, baina garrantzitsuena falta zaizu: zeure pintura estiloa sortzea”. “Zoaz kalera, eta soltatu egingo zara: ordu gutxi edukiko duzu pinta-tzeko, eta soltatu egingo zara” esaten zidan. “Eta egunen batean, aterako duzu zeure koadroa, eta hortik hasiko da aldaketa”.

“Julio Gomez Mena da, nire ustez, oraingo margolaririk onena.”

Eta aldatzeari ekin zenion...

Bueno, kasualitatez izan zen. Hasi nintzen kalean, eta lehen urtean oso txarto ibili nintzen: amaitu ezinda eta gaizki; baina, hala ere, sari bat lortu nuen. Eta harrigarria izan zen, zeren jarri nuen erakusketa bat Azkoitian beste pintore batekin, Jose Mari Iruretagoienarekin, eta Juan Carlos Perez agertu zen erakusketan igande hartan. Lagunak gara Juan Carlos eta biok, eta hauxe esan zidan: “Bueno, nik buelta bat emango dut, dena ikusi eta gero neure iritzia emango dizut”. Hogeiren bat koadro neuzkan, denak errealistak, eta bakarra neukan hasierako saria ateratakoa (San Antonio ermitarena). Desberdina zen, beste atmosfera batekin zegoen egin-da. Besteekin zerikusirik gabea, misteriotsua. Buelta osoa eman zuenean, hauxe esan zidan: “Begira, Anton, nik denak ikusi ditut, eta ez dizut esango gaizki daudenik, zeren oso ondo daude, baina pare bat minutu begira egon eta gero ez didate ezer esaten. Baina badaukazu hor bat, bost minutu, hamar edo ordu laurden begira egon arren, beti deika ari zaidana; zerbait dauka, misterio bat da”. Ba, huraxe izan zen kaleko nire lehen sorkuntza. Huraxe izan zen nire aldaketaren lehen urratsa. Handik aurrera, hurrengo urtean, bost edo zazpi sari lortu nituen, eta lagun batek esaten zidan: “Hemen zerbait pasatzen ari da, gauza harrigarriak egiten ari zara... eta ojo zurekin!” Irakaslea da bera, eta harrituta gelditzen zen berak emandako aholkuak zein azkar aplikatzen nituen ikusita: lehiaketa batetik bestera nabarmentzen zuen berak aldea.

Kalea: eskolarik onena.

Nik kaleari zor diot ikasitako guztia. Ni oso pertsona zorrotza naiz: asko eskatzen diot neure buruari. Beraz, beti aurrera eta aurrera egin nahi dut, beti hobetu nahian. Aurten Collage-ak egiten ere hasi naiz. Ni akuarelan hasi nintzen, gero errealismora pasa nintzen eta orain inpresionismora sartu naiz. Difuminazioa egiten dut asko: ikusten-dela ez-dela pintatzea. Argia beti puntu batera eramaten dut, eta gero beste dena galdu egiten dut. Kuriosoa da orain dela urte batzuk Mutrikun pintatzen ari nintzela Bittor Arizmendik emandako aholkua: “Urrutiko etxeetako leihoak-eta ezin dira detailatu distantzia handia dago-eta, horiek “apurtu” egin behar dituzu, urruti dagoena urruti dagoela emateko”. Ni artean oso gaztea nintzen, eta ez nion kontuan hartu, baina gaur da eguna denak esaten didatena horixe dela ondoen kontrolatzen dudana: distantzia eta sakontasuna, profundidadea esaten dena. Eta, gero, ura; ez kostaldeko itsasgora edo itsasbehera eta arrantzale mundua bakarrik, baizik eta errekak, euria, lur bustiak, erreflexuak... Ura, hitz batean esanda. Eta denek esaten didate horixe dela gauzarik zailenetakoa: ura, uraren erreflexuak eta distantzia eta sakontasuna ematea koadroari saio bakar batean, hau da, goiz batean. Gainera, zenbat eta ordu gutxiago leihatzeko, orduan eta hobeto ibilitzen naiz, oso azkar amaitzen ditut koadroak: kapaz naiz 3-4 ordutan beste batzuek estudioan astebetean egiten dutena egiteko. Berezko dohain bat daukat.

Saririk onena, berriz, ...

Sari ugari irabazi ditut, baina niretzak saririk onena kalean pintatzen ari naizela egiten dizkidaten komentarioak dira; alegia, lanean ari naizela esaten dizkidaten gauzak: Nolako abilidadea daukan! Honek bai eskua! Nola jaso daiteke hain denbora gutxian hainbesteko zehaztasuna! Sinestezina da! Eta antzeko kontuak entzuten ditut lanean ari naizela. Niretzat saririk onena horixe da: jendeari zuzenean entzuten diodana. Azken sariketan, esate baterako, nahi izan banu, koadroa salduta neukan amaitu baino lehen, saritan atera nezakeena baino diru gehiagorengatik gainera! Pujatu nahian ari ziren, baina nik esan nien sarituetatik kanpo gelditzen banintzen, lehenengo eskaintza egin zidanari salduko niola. Izan ere, ni hara lehiatzera joan nintzen eta ez dirua ateratzera. Dirua ez da dena, askotan, jendearen iritzia eta saria lortzeak gehiago balio du diruak baino.

http://www.antonurreisti.artelista.com

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA

Amnistiak, euskal preso, errepresaliatu eta iheslari politiko guztiak askatasun osoz etxera itzultzea ekarri behar du, egoera horretara eraman dituen arrazoiak gainditzearekin batera.

Mendeetako gatazka egun batetik bestera konpontzen ez den heinean, Amnistia ez da egun bateko gertaera, prozesu dinamikoa baizik.

Ez dago etxean

Euskal Herrian gatazka politikoa konpontzeak, honek eragindako kalte eta ondorioak gainditzea ekarri behar du berarekin. Gatazka egoteko arrazoiak, preso eta iheslari politikoak egoteko arrazoi berak dira. Horregatik, arrazoi horien desagerpenak, bere ondorioen desagerpena ere ekarri behar du, besteak beste, preso eta iheslarien etxeratzea, eta aurrerantzean gehiago ez izatea.

Honela bada, Amnistia gaurtik abian jarri beharreko bidea da, preso eta iheslari guztiak askatasuna eta eskubide guztien jabe etxera itzultzeko ibilbidea hain justu, pausoka egingo duguna. Luzea izango dena seguruenera, baina lehen bai lehen, presoak etxeratzen hasteko eta guztiak erabat aske izatera iristeraino etenik izango ez duena, Amnistia eta Konponbide demokratikoa txanpon beraren bi alde baitira.

Honenbestez, kartzela politika konponbide klabeetara aldatzeak, Amnistiaren bidean honako urratsak jaso eta ahalbidetu behar ditu:

Muturreko egoerak ezartzeko salbuespeneko neurri guztiak indargabetzea: dispertsioa bukatzea; kondena bete dutenak, gaixorik direnak, ¾-ak bete dituztenak kalera ateratzea; tratu krudelak bukatzea, hala nola isolamendua, bakartzea, jipoiak...

Euskal Preso Politikoen Kolektiboa Euskal Herrian batzea, dagozkion eskubide indibidual, kolektibo, gizabanako, politiko eta zibilen jabe, Euskal Herriko prozesuan, gainerako eragileek bezala, inolako trabarik gabe parte har dezan ahalbidetuz.

Gatazka konpontzeko prozesuan, gatazkaren ondorioak gainditu joatea beharrezkoa izango da, besteak beste, preso eta iheslari politikoen etxeratzea ahalbidetuz. Gatazka konpontzeko prozesua, Amnistia prozesua ere bada.

IÑIGOBELEN
kontce 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
ametoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
al madalen madalen...
euskal preso eta iheslariak etxera

Ondo pasa Malenak!!
Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

UDA HONETAN ESKAINTZA ZABALA ZURE GORPUTZA ZAINTZEKO

Estetika eta Terapia Institutoa

UNIXES GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

> Zelulitisaren aurka
> Erreafirmatzailea
> Estrien aurka
> Bularrak sendotzeko
> Zirkulazioa hobetzeko + Presoterapia
> Lokatzaz
> Oinarizko oiloaz
> Indiba
> Fisioterapia
> Errehabilitazioa

apain

Beheko plaza, 5
Tel.: 943 60 42 29
20830 Mutriku

Fisioterapeuta tituluduna

> Aurpegiko azala berriztatzeko tratamenduak: Indiba / Laserra
> Galileo fitness
> Erditze prestaketa
> Drenaje linfatikoa
> Depilazioak: Beroa, Hotza, Elektrikoa, Laserra
> Mikropigmentazioa
> Pedikura -Manikura
> Betileetako permanentea eta tintea
> Makillajeak

PROMOZIOA: Gorputz Tratamendu bakoitzarekin BI GAILEO SESIO oparitzen dira.

EDERTASUN KONTZEPTU BERRI BAT: ESTETIKA, FISIOTERAPIA ETA KOSMETIKA BAT EGINDA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ONGIZATEA LANTZEN DUENA.

Herri txiki txiki bat
sortu zan ludian
Mutriku izenakin
Arnoren oiñian
Ontziak kaian
Txurruka plaza
kale baserri txuriak


ai Madalen, Madalen
ai Madalen
zure bila nenbilen
orain baino lehen
Berriz etorriko zera
Mutrikuko kaiera
han daukazu maitea
ta bihotza

BERTAN GARA:

ADATS ILEAPAINDEGIAK 943 60 71 59
ALAZNE OPTIKA 943 60 31 54
ALBARO DENDA 943 60 33 48
ALBOKA 943 60 46 73
ALEGIAZKO MUNDUA 943 02 93 47
AMALUR 943 60 47 42
ANAIARTE TABERNA 610 364 676
ANSORREGI OINETAKOAK 943 60 33 42
APAIN, ESTETIKA 943 60 42 29
APARRA-KRESALA JANTZIAK 943 60 45 94
ARNO OKINDEGIA 943 19 50 42
ASTIGARRAGA ANAIAK 943 60 40 86
BARE BARE TABERNA 943 60 42 03
BERISTAIN LIBURUDENDA 943 02 91 34
BODEGOIA TABERNA 943 60 46 23
BUCEO EUSKADI 943 19 50 88
ERDIKO MERTZERIA 943 60 45 94
ELEIZGARAI MASAJISTA 943 60 39 38
GALDONA KANPIÑA 685 784 465
GOITI BEHERA TABERNA 943 19 50 62
GOTZON ARRANDEGIA 943 02 93 47
GUADALUPE ELIKAGAIAK 943 60 35 43
IÑARRA EDARI-BILTEGIA 619 764 886
IÑIGO-BELEN 943 60 37 01
IPARRAGIRRE ALTZARIAK 943 60 39 79
IRIPE ELEKTRA SALMENTAK 943 60 33 47
KIRIK GOZOTEGIA 943 60 47 42
KULIXKA TABERNA 943 60 46 02
LEAR ERROPADENDA 943 19 22 49
LON APRAIZ BOTIKA 943 60 32 50
LORETXU TABERNA 943 60 37 46
MADARIAGA PAPER DENDA 943 60 44 23
MANEIRO LENTZERIA 943 60 31 76
MGS ASEGUROAK 630 78 80 59
MILA FRUTADENDA 943 6039 45
MIRUAITZ TABERNA 943 10 73 93
OLAIZOLA UME JANTZIAK 943 19 50 74
PANADERI BERRI 943 60 33 03
PINPIRIN ESTETIKA 943 60 39 59
POTERO OKINDEGIA 943 60 36 43
SAGARMIÑA ERAIKETAK 943 02 91 98
SUBELTZ TABERNA 943 60 30 58
ZELAIETA JATETXEA (Olatz) 943 60 45 96
ZIBOT 690 84 05 79
ZUBIARAM TABERNA 943 19 51 07

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Mutrikuko Udala

mutrikuko dendarien elkartea

Bertan gaituzu!

XXVI. OKELAR BERTSOPAPER SARIKETA

GAZTEEN MAILA

GOIKO PLAZA
Doinua: “Ama begira zazu”
Egilea: Leire Irizar

1)
Hementxe gabiltza gu
umeok jolasten
gurasoak hizketan
eta zerbait hartzen.

2)
Udala ta eliza
daude hemen bertan
plaza hontan elkartzen
gara gu festetan.

3)
Estatua horrek du
Txurrukaren traza
han da gure herriak
daukan Goiko Plaza.

HONDARTZA
Doinua: “Astoa ikusi nuen”
Egilea: Andoni Barrenetxea

Behin batean bazen
amona arrantzan
arraina harrapatu
eta hasi zen dantzan
ni barrez lehertu ta
sartu nintzen saltsan
amona zaharra erre
egin da hondartzan.

TXURRUKA PLAZA
Doinua: “Maritxu nora zoaz”
Egilea: Alaitz M.

Karnabala iritsi
denak daude dantzan
denak daude poz-pozik
ni nago uretan
beste batzuk berriro
daude gezurretan
pailazoak mozkortu
egin dira bertan.

SANTO TOMASEKO FERIA ZORAGARRIA
Doinua: “Orbelak airez aire”
Egilea: Irati Arreitunandia

1)
Santo Tomasetra
joan zirenean
animaliak zeuden
kale guztietan.

2)
Berrogeita hamar euro
lortu eta gero
ni banoa gastatu
beharra baitago.

3)
Txorixo ta talua
gozuak bai dira
baina nik nahi dudana
merengeak dira.

ANTONIO AGIRREGOMEZKORTA "TXARTXA"

Atleta bat defentsa lanetan



Nolakoak izan hituen lehen harremanak baloiarekin?

Jose Mari Galparsoro

Gure haurtzaroan, kalean egiten genuen bizitza, eta Katu-kalea eta Beheko Plaza genituen hurbileneko jolas-leku. Denetara jolasten genuen, baina futbola zen errege. Bi arbola zeuden lekuan, hantxe zegoen porteria; Beheko Plaza zaharrean bagenuen aterpea ere. Ez genuen gehiago behar.

Beheko Plazaren eraldaketa lanak hasterakoan, eliza alboko Plaza Txikira egin genuen salto. Dena den, partaide kopurua kontutan izanez gero, olinpiadak frontoian izaten ziren. Ume andana biltzen ginen baloi bakar baten atzetik; ez zen arbitrorik ez entrenatzailerik behar. Hankak egin eta ekipoak osatu ondoren, libre zen bikoteka jendea sartzen joatea, inolako mugarik gabe.

Hamabost urterekin fitxatu gintuen Burumendik. River Plate argentinar ekipoak oparitutako kamisetak —zuriak banda diagonal gorri batekin— ilusioz jantzi genituen. Lehenengo urtean ligako finala jokatu genuen Atotxan Legazpiko Ilintxaren kontra. 4-2 galdu genuen. Ze pena! Antoniok, hala ere, aurrera egin zuen Gipuzkoako jubenilen selekzioarekin jokatzeraino.

Hemezortzi urte bete berriak, eta 3. Mailan zegoen Mirandesera. Nola gertatu zen hori?

Pedro Lekube

Mirandako arrain-saltzaile bat eta Nikanor *Mendixa* izan ziren bitartekari Antonio, Eduardo Arrieta eta ni fitxatzeko. Gaurko begiekin ez genuke ulertuko orduko funtzionamendua: entrenamenduak geure kasa egiten genituen, gehienetan bakoitzak bere aldetik, zeren, lana zela edo soldadutza zela, ez baikenuen aukerarik astegunetan zehar elkarrekin egoteko, eta igande goizez, aste batean Mirandara, eta hurrengoan tokatzen zitzaigun lekura Debako Txapasta edo Laxaro taxilariekin. Bigarren urtean Inazio Biribil eta Joxe Mari Ametza ere fitxatu zituzten, eta bostok ibiltzen ginen era horretan. Behin, Txapastaren autoak matxura izan zuen Mirandako zubian, eta berandu iritsi ginen futbol zelaira. Ia ekipo erdia ginenez, zain egon behar izan zuten partida hasteko.

Ohikoa bidean bazkari suabea egitea izaten zen jokoan arintasunez ibiltzeko, baina behin Lizarrara bidean Urbasa mendiko Abarzuza herrian gelditu ginen eta berdura eskatu. Berdurak bai, baina dezente arkumerekin atera zizkiguten platerera. Elkarri begiratu eta, ondoren begiak platerean bakarrik jarriz, errepaso ederra eman genien jaki haiei. Inoiz baino azkarrago ibili ginen zelaian 0-3 irabaziz.

Beste batean, Antonio eta biok Estrasburgora eraman gintuzten Campeonato de Europa de la Juventud deitzen zioten lehiaketara, gaurko Sub-21 izango litzatekeena. Orduan, Espainiako selekzioa izanda ere, klub baten izenarekin joaten zen, eta urte hartan Mirandesi tokatu zitzaion. Egunero jokatzen genituen kanporaketak, eta, denak gainditu ondoren, Manchesterren aurka jokatu genuen finala: 1-0 galdu genuen. Finala galtzeaz gain, kiloak ere galdu geni-

tuen hamar egun haietan gurinarekin prestatutako jakiak ezin janik. Parisko Garaipen Arkuaren inguruan baretu genituen tripa-zorriak.

Mirandan erdi jaungoiko izatera heldu ginen, batik bat Logroñesi irabazi genionean.

Hogei urterekin gorritxo jantzita Osasunan, nola bizi izan hintuen urte haiek?

Julio Santamaria (Osaunako jokalaria)

Ikusle nintzela, San Juan futbol zelaiko harmailetatik, ezagutu nuen gorritxo jantzita Osasunako beste jokalari ospetsuen artean: Zoco, Sabino, Serena, Fuste, Gensana, Ribada, Zaldua, Sertucha eta abarrekin. 1961, 1962 eta 1963. urteak ziren. Jokalari atleta, pase izugarriak egiteko gai zen ezker oin miragarriarekin. 1965ean taldekide izan nintzenetik Agirre hura "Motri" bilakatu zen, eta hurbil-hurbiletik ezagutu nituen bere kalitate teknikoa eta entrenamenduetan jartzen zuen amorrua; horrek eta ondo zaintzen zuen bizitza pribatuak eliteko profesional osoa izatera bideratu zuten.

Elkarrekin inauguratu genuen oraingo Sadar estadioa, eta elkarrekin bizi izan genituen une pozgarriak eta latzak, bigarren eta hirugarren mailen arteko gorabeherak. Bere izaera erabakigarria izan zen zenbait partidu garrantzizkoetan. Zorrotza kideekin futbol zelaian, eta gogorra guztiz ahalegintzen ez zirenekin, unetan sumindu ere bai, baina aldagelan konpontzen zekiena zen: jokalari ona eta pertsona hobea. Osasunaren azken urteak, esango nuke, ez ziotela barrua bete: beste maila bateko jokalaria zen.

"Motri"ren egoera azaldu didazuenez, aprobetxatu nahi dut animoak emateko bihotzez bere familia eta ingurukoei. Nire pentsamenduan, jokalari atleta hura gordeko dut beti.

Aire berriak Badajozen Jose Luis anaiarekin?

Jose Luis Agirregomezkorta (anaia)

Esteban Legarda Estebin izan zen harako bidea zabaldu ziguna. Ni, kanpora joateko irrikaz eta Anton, ibilbide profesionalaren bukaeran. Nire lehen irteeran laguntzearren gehiago izan zen bere gogoz baino. Oso
urte ona izan zuen, eta nahiz eta beste bi urtetarako fitxatzea eskaini zioten, Mutrikura bueltatzea erabaki zuen, niri bertan jarrai nezala aholkatuz. Ordura arte, ez nuen inoiz Antonekin batera jokatu. Behin gertatu ginen San Miguel zelaian, baina aurkari bezala: bera Osasunan eta ni Mutrikun.

Anekdotatxo bat. Une txarra igarotzen ari zen Badajoz, eta entrenatzaileari ultimatuma eman zioten: partida hura irabazi edo fitxa etengo zioten. Egun euritsua zen, eta, azken unean ginela, baloi bat eskatu nion; derrigortuta edo bustita, laprast egin zidan eskuetan, eta baloia barrura. Gol hargatik galdu genuen partida, eta aldageletan honela zioen entrenatzaileak: "Bi anaion artean bota nauzue ekipotik".

Baina, futbola ezin utzi …

Jose Luis Arrizabalaga "Sabino"

Badajozetik etorri eta Mutrikun fitxatu zuen. Haren gogoa eta ahalegina ikusita, bai partidatan zein entrenamenduetan, bazirudien orduan hasten zela futbolean. 38 urte arte jokatu zuen, eta hurrengo urteak entrenatzaile lanetan; hala ere, praka motzak jantzi eta sarri ateratzen zen zelaira.

Gauza bat ikasi nuen berarengandik: zelaian eman behar zen guztia eman eta haserretzen bazen ere, partida bukaeran dena ahazten zuen eta alde baikorrak bakarrik gogoratzen.

Futbitoan ere Ahorba taldearekin hartzen zuen parte, nahiz eta urteetan aurrera izan.



SAGARMIÑA RAIKETAK S.L.
Ondo pasa Malen jaixak!
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarminaeraiketak.com
www.sagarminaeraiketak.com

LARRUA LANTZEKO ARTEA; LARRUGINTZA

Mari Carmen Arizmendiarrieta mutrikuarra Eibarren jaio zen 1960an, urte batzuk bertan egin bazituen ere, gaztetan Mutrikura etorri zen bizitzera. Lehendabizikoz, jaioterrian hasi zen eskuak erabiliz bitxi dotoreak egiten, eta, gaur egun, larrua lantzen du. Lanbidez, larrugina izan ez arren, larrugintza zainetan daramala baiezta dezakegu. Emakume artisau honek jadanik hainbat eta hainbat diru-zorro, poltsa, belarritako eta eskuturreko dotore egin ditu. Bere kabuz ikasi duen lanbidea hobetzeko asmoarekin jarraitzen duela adierazteaz gain, beste hainbat gauza ere kontatu dizkigu.

Noiz eta nola hasi zinen larruarekin lanean? Norbaitek bultzatuta, agian?

Neska koxkor bat nintzela, Eibarren belarritakoak eta hainbat bitxikeria egiten hasi nintzen; behar genituen tresnak erosi, bitxiak osatu eta saltzen jartzen genituen, baita oparitu ere. Ondoren, urte mordoxka egon naiz eskulan horiek utzita, eta badira lau bat urte berriro heldu diodala hain gogoko dudan lan horri, hain zuzen ere, Mutrikun. Oraingo honetan, larrua lantzea erabaki nuen. Egun batean, emakume mutrikuar batek larru puskeeta bat zuela eta ea zerbait egiteko nahi nuen galdetu zidan. Nik baiezkoa erantzun eta halaxe egin nuen, larru zatiarekin diru-zorro txikiak egiten hasi nintzen.

Zein material eta tresna erabiltzen dituzu?

Esku-tresnei dagokienez, honako hauek nabarmenduko nituzke: hainbat tamaina eta formako puska-kentzekoak, guraizeak edo kuterrak, zabalera desberdineko ertz-hiltzaileak, larru tirak ateratzeko tresna bereziak, aliketak, jostorratzak eta hainbat forma edo marrazki grabatzeko puntzoiak.

Tinterik erabiltzen al duzu?
Ez, ez dut tinterik erabiltzen. Lan egiteko nahiago dut tindatu gabeko larrua. Bestalde, izugarrizko garrantzia dauka larruaren jatorriak, hau da, larru zatitxoa bizkar ingurukoa den, izterrekoa, ipurdi gainekoa...

Zein da larrua lantzeko prozesua?
Lehendabizi, larruaren eskaera egin behar da, nik ahuntzaren edo behiaren larrua erabiltzen dut gehienbat eta Asturias aldetik ekartzen dut. Ondoren, lanean hasteko, buruan darabilzun ideia edo irudia kartoi batean islatzen ahalegintzen naiz, oinarri edo patroi gisa. Irudi hori ondo landua izan ondoren, larrura pasatzen dut. Hurrengo pausua larrua moztea litzateke, horretarako kuterra erabiltzen dut, eta pixkanaka pixkanaka larrua lantzen hasten naiz: izkinak dotoretu, larru tirak atera, larrua zulatu eta irekidurak egin (kalatzea) ... Den-dena eskuz egiten dut tresna batzuen laguntzaz.

Egin al duzu ikastarorik?
Ez, baina badaukat gauza berriak ikasteko gogoa; larruarekin irudi ezberdinak egiten ikastea gustatuko litzaidake: loretxoak, sorginak, katuak... Hala eta guztiz ere, esan beharra daukat norberak egiten dituen saiakera eta ahalegin guztien ondorioz ikasten dela gehienbat, horixe da ikastarorik onena. Bestalde, ez dut larrua lantzeko ikastarorik egin, bai ordea, zapiak edo tela pusketak josteko ikastaroa, hementxe Mutrikun. Hor ikasitako ia guztia larruaren lanketan erabiltzen ahaleginduko naiz.

Nolako gauzak egiten dituzu?
Gehienbat poltsak egiten ditut, baina horrez gain: belarritakoak, eskuturrekoak, koilareak, diru-zorroak..., eraztunak ere egin izan ditut, sandaliak, ilean jartzeko txintxilizkatzekoak eta orain momentuan Harley Davidson motorrerako poltsa beltz bat egiten ari naiz. Azken lan hori nahiko abentura izango da niretzat.

Lan bereziren bat?
Bai, Mutrikuko 800. urteurrena zela-eta, San Pedro egunean erakustaldia egiteko, marinelek antzina erabiltzen zituzten larruzko bota batzuk egin behar izan nituen. Asko kostatu zitzaidan lan hori, larrua egurrezko oinari josi behar izan bainion iltzeekin, eta, gainera, bota baten gorputza landu. Niretzat erronka handi bat izan zen, ez bainuen horrelako lanik egin sekula.

Etxean egokitutako tailerrean egiten al duzu lan?
Ez, ez dut lan egiteko leku zehatzik. Orain, udako sasoi honetan, asko atsegin dut moilan lan egitea; neguan, ordea, etxean egiten dut lan, sukaldean edo egongelan. Egia esan, gure etxeko egongelari Marruecos hiriaren tankera hartzen diot, edozein izkinatan aurkitu baititzakezu larru pusketak. Hori bai, larru zati horiek guztiak aprobetxatzen ditut hurrengoan bururatzen zaidan lantxoren bat egiteko. Eta, gainera, esango dizut lurrean eserita lan egitea atsegin dudala.

Ikusten al duzu lanbide honetatik bizimodua ateratzeko modurik?
Egiten ditudan poltsa, kartera, belarritako edo beste edozein bitxikeria bakarrak direla pentsatu behar da; hau da, berdinik ez duzu aurkituko, eta egiten ditudan lan guztiak eskuz eginak dira. Beraz, ez da erraza lan horiei balioa jartzea, garesti xamarrak irteten dira. Kontuan izaten baduzu, ordea, larruaren balioa eta egindako lan guztia eskuz eginik dagoela, ba, jartzen diozun balioa ez da nahikoa. Ez dakit, ba, agian urte batzuk barru horretatik bizitzea posible izango da, ez egiten ditudan poltsa eta bitxiak salduz, baizik eta ikasi dudan guztia irakatsiz. Interesgarria iruditzen zait Mutrikuko gaztetxoei larrua lantzeko ikastaroak emateko aukera izatea. Eta nork daki, dendatxoren bat jartzea ere gustatuko litzaidake! Hori guztia egin ahal izateko hobetzen joan beharra daukat.

GOTZON ARRANDEGIA
Ondo pasa Malen jaixak!
Gotzon Elzaguirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59

ETXERRE
LORE-TOKI
Lore eta landareetan eskaintza zabala opari, ezkontza, hiletetarako...
Ondo pasa Malenak!
Mutriku-Ondarroa errepidea - Tel.:943 60 39 97

MOTZ-MOTZIAN ETA GIRO EDERRIAN

Mutrikuko Zine Forum taldeak oraingoan ere ahoa gozatu digu. Aspalditik buruan zuten ideia bat borobiltzea lortu dute, eta nola gainera: lehenengo aldiz film laburren lehiaketa antolatu eta 14 lan aurkeztu dizkiete! Ezusteko ederra hartu dute, eta pozez gainezka aurkitu ditugu.

Aurkeztutako lanen artean gai eta kolore desberdinetakoak, batzuk besteak baino luzeagoak, denen gustua asetzeko modukoak. Haibesteko arrakasta ikusita, zer hoberik herritarrei pase berezia ematea baino. Zabiel Kultur Etxeko aretoa lepo bete zen domeka arratsaldean, denak gozatu ederra hartzeko asmoz. Bideo lan hauek ikusteko aukera izan zen: Roberto Gimmeransen “Agirrehaundikoa”, Marisa Martinezen “Kafea lagunekin”, Axular Arizmendiren “Araba Euskaraz”, Marisa Martinezen “Lan bila”, Igone Arreitunandiaren “Aran”, Naiara Urangaren “Bizitzak ikasten”, Mutrikuko Gazte Asanbladaren “Mutrikuko Gaztetxia, 10. urteurrena” ,Moxolo Team taldearen “Denda zorua”, Axular Arizmendiren “ Nahixan”, Marisa Martinezen “Heldu dira gabonak”, Agurne Elorza eta Endika Nuñezen “Santabata”, Marisa Martinezen “Inoiz esan ez nizuna”, Juan Luis Arrizabalagaren “Izan direlako gara” eta Jon Bergararen “Te_dua”. Bertaratutako ikusleek sentimendu desberdinak bizitzeko aukera izan zuten.

Eta San Juan egunean, hitzordu bereziari kasu eginez, saridunen berri jakiteko grinaz hurbildu ziren herritarrak Zabielera. Zine Forumekoek aurkezpena egin ondoren, Amparo Royo, Aitor Osa eta Iñigo Lezertua epaimahaikideak izan ziren sari emaleak.

Hiru sari banatu ziren: 18 urtetik gorako saria, Xiri Andonegi Saria, 300 euroko erosketa txartela zeramana, Igone Arreitunandiarentzat izan zen “Aran” film laburragatik. Kirmen Uriberen poesia bati lotutako irudiak izan dira sarituak, Saturrarango irudiak, hain zuzen ere.

18 urtetik beherakoetan, Moxolo Team taldeak jaso zuen saria “Denda zorua” lanarekin. Mutiko talde horrek barre algara ederrak eragin zizkion ikuslegoari, eta txalo zaparrada luzea eta beroa jaso zuen. Bideo-kamera bat izan zen saria, nork daki non dagoen etorkizuna…!

Sari horietaz gain, epaimahaiak nabarmendu nahi izan zuen Jon Bergararen “Te_dua” lana, eta Accesit aipamena eman zion. Sari horietaz gain, irabazle guztiek oraigarri berezi bana jaso zuten: Xiri Andonegi zenaren eskultura baten erreplika txikia. Nahia, alaba, izan zen oroigarriak eman zituena.

Sari banaketa ofizialaren ondoren, lehiaketan parte hartutako guztiek diploma jasotzeko aukera izan zuten.

Antolaketaren nondik norakoak

Guzti hori ez da ezerezetik sortzen, lan handia du atzetik, eta horretaz mintzatu zaigu Zine Forumeko

HOTEL
KOFRADI
ZAHARRA
JATETXEA - RESTAURANTE
Malen jaixetan ondo ibili!
Telf. 943.60.39.54
Muelle, 1
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

Maneiro
lentzeria
barruko arropak
eskulanak
hariak
Onda pasatu Maler jaiak!
Erdiko kalea, 27 - 943 60 31 76

kidea: “ Askotan komentatu izan genuen antzeko zerbait egitekoaren kontua; izan ere, gure zeregina zine emanaldiak antolatzeaz gain, herritarrei zinea sortzeko aukera eskaintzea ere bada. Irailean, ikasturtea hasi zenean, ideia hori bazebilen bueltaka, eta urte berriarekin batera ekin genion antolaketari. Zine Forumeko partaideez gain, beste herritar batzuekin ere jarri ginen harremanetan, talde zabala osatu nahi genuelako, bagenekielako bazutela zer esana.

Otsailean izan zen lehiaketaren aurkezpena, eta handik aurrera lanak jasotzeko prest ginen. Errazena egin da zegoen, nolabait esateko. Ondoren, beste hamaika lan zegoen egiteko, eta horietako bat epaimahaia bilatzea izan zen. Egoki iruditu zitzaigun zine emanaldietara etortzen direnekin egotea, telebista munduan eta irudi munduan dabiltzan herritarrekin hitz egitea eta horiekin osatzea epaimahaia. Lan handia egin dutela uste dugu, ez baita erraza hainbeste lan epaitzea. Azken ordurarte, gaur arte, ez dugu jakin irabazleen berri, eta piska bat inprobisatzen ibili behar izan dugu diplomak egiteko orduan.

Publizitate lana ere sendoa izan da, eta uste dugu bere fruituak eman dituela, guk espero ez genituenak. Pozik, oso pozik gaude alde horretatik eta horrelako emaitzek aurrera egiteko gogoa ere sortzen digute. Parte hartzaile guztiak mutrikuar amateurrak izan dira. Adin aldetik ere denetik egon da, eta sortutako istorioen ugaritasuna izan da politena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartzaile guztiei, epaimahaikide izan diren: Amparo Royo, Bakarne Aretxabaleta, Ramonita Etxano, Iñigo Lezertua eta Aitor Osari. Lagundu diguten guztiei: Enekoitz Andonegi, Joseba Palenzuela, Alberto Juarez, Garbiñe Garagarza eta Jon Bergarari; era berean, Mutrikuko udalari eta Kalaputxiri. Eta ahaztu gabe, gu babesten gaituzten herritar guztiei. Eskerrik asko guzti-guztiei”.

Epaimahaikideen ahotsa

“Guretzat ere ezustea izan da hainbeste lan aurkeztu izana, ez baikenuen espero halako erantzun ona. Asko baloratu dugu, gainera, lehiaketa honetara bereziki zuzendutako lanak izan direla, eta esperantzarik onenak sortu dizkigu horrek. Luze eztabaidatu dugu, argudio asko eman ditugu eta aho batez hartu ditugu erabakiak.

Bestalde, interesgarria iruditzen zaigu honek jarraipena izatea, etorkizun oparoa duela uste dugulako. Ni desiratzen nago datorren urteko lanak ikusteko”.

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK

AITOR eta NAHIA
Zorionak gure bikote jatorrari uztailaren 25ean 4 urte handi beteko dituztelako. Muxu handi bat aita-ama eta aiton-amonen partez.

IOSU eta ANER
Zorionak bikote!!! Muxu handi bana etxekoen partez.

ANDONI
Zorionak gure txirrindulariari ekainaren 19an urtebetetzea izan zelako. Muxuak etxeko danon partez, bereziki Enarak.

ENARA
Zorionak gure poxpolinari uztailaren 11an urtebetetzea izan zelako. Muxuak etxeko danon partez, batez ere Andoniren partez.

GARAIA
Zorionak eta milaka muxu gure altxor preziatuenai eta neska jatorrai. Etxeko danan partez baina batez ere aita, ama eta zure hiru anaixa txikitxuen partez.

JOKIN
Zorionak etxeko bihurriari irailaren 13an hiru urte egiten dituelako. Muxu handi bat etxeko danon partez baina bereziki Maddik.

MADDI
Zorionak gure printzesari abuztuaren 6an bost urte egiten dituelako. Muxu handi bat etxeko danon partez baina bereziki Jokinek.

ALEX
Zorionak eta besarkada handi bat. Ondo-ondo pasa uztailaren 30ean, zure egunean. Diego eta Karmeleren partez.

PEDRO
Zorionak gure irrintzilari trebeari! datorren urtean aurten bezelaixe edo hobeto.

NORMA eta GLORIA
Zorionak bioi Mutrikuko zuen lagunen partez.

UNAI eta KARLOS
Gure bi ehiztariei zorionak eta muxu handi bana etxeko danon partez, ea txokolatada eder bat prestatzen duzuen

MAITE
Zorionak Malen Txiki egunean. Eutsi goiari! Muxuak.

ELAIA
Txo! zazpi hatzapar behar dituzu dagoeneko urteak zenbatzeko... Zorionak!

SOTO
Zorionak! bat gehixo? lasai, hori seinale ona da ta. Matxo haundi haundi bat familiko danon partez.

ENEKO, JON eta JOSEBA
Gazteenei zorionak emateko egon gara zain eta xaharrenari aurrez, baezpane.
Eta zain egongo gara, elkarrekin ospatu beharrekoak ospatzeko!

1960ko hamarkada. Malen jaietako danborrada eta karroza.



BAR KO
MUTRIKU
943604002
Bokatak
Hanburgesak
Sandwichak
Pintxo morunoak
...eta nahi duzuna
Ondo pasa Malen jaixak!

ELORRETA, S.L.
ERAIKETAK · ERREFORMAK · IGELTSERITZA
Ondo ibili Malenetan!
Asier Lersundi
680 579 961
Kepa Martinez
617 842 004
San Agustin 43 · MUTRIKU · Tel. eta Fax 943 604 387 · elorretaeraiketak@gmail.com

UDAKO EKITALDIAK

uztailak 15, barixakua
Debekatuta dago oroitzea dokumentalaren emanaldia. Ondoren, **Kontzertua** Saturraranen, 22:30etan
Antolatzaileak: Zine Forum, MRK eta Bertso Eskola

uztailak 16, zapatua
Txistulari Alardea, 23:00etan Txurruka plazan

Uztailak 21, 22, 23, 24 eta 25
MALEN JAIAK 2011 (ikus programa)

Uztailak 30, zapatua
TROVAHABANA taldea (Kubatar musika)
23:00etan Txurruka plazan

Abuztuak 6, zapatua 23:00etan
JORGINHO taldea (Brasildar musika)
Txurruka plazan

Abuztuak 13, zapatua
Mexiko Mariatxi Imperial 19:00etan Kalejiran eta 23:00etan Kontzertua Txurruka plazan.

Abuztuak 20, zapatua 22:30etan
Sokamuturra dokumentala, Zabiel plazan

Abuztuak 27, zapatua 23:00etan
Iddawc taldea (Zeltiar musika), Txurruka Plazan

Irailak 9, barixakua
Bertso Jaialdia, Jon Maia, Arkaitz Estiballes, Julio Soto eta Miren Amuriza bertsolariekin.
Antolatzailea: Mutrikuko Bertso Eskola

ZAINTZAKO BOTIKAK

UZTAILA

15etik **17**ra Burgoa
(zapatu goizean, Apraiz)
18tik **21**era Otxagabia
22tik **24**ra Apraiz
23tik **26**ra Otxagabia
25etik **28**ra Burgoa
29tik **31**ra Zalduegi
(zapatu goizean Otxagabia)

ABUZTUA

1etik **4**ra Apraiz
5etik **7**ra Otxagabia
(zapatu goizean, Otxagabia)
8tik **11**ra Zalduegi
12tik **14**ra Burgoa
(zapatu goizean Apraiz)
15etik **18**ra Otxagabia
19tik **21**era Burgoa
22tik **25**era Burgoa
26tik **28**ra Zalduegi
29tik **31**ra Apraiz
(zapatu goizean Otxagabia)

IRAILA

1ean Apraiz
2tik **4**ra Otxagabia
5etik **8**ra Zalduegi
9tik **11**ra Burgoa
(zapatu goizean Apraiz)
12tik **15**era Otxagabia

ERDIKO
Merzeria
Kinkilak, azpiko arropak, hariak, artilea...
Erdiko kale 12 - Tel. 665 715 039

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

- Etxea apaintzeko proiektuak
  - Altzariak
    - Sukaldeak
      - Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

Malen jai zoriontsuak herritar guztioi!

AB AROZTEGIA

BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA

Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.euskalnet.net

Giro jatorrak elkartu gaitzala Malen jaietan.

Mutrikuko Udala